

Donaixtik 'San Mixel Garikoitz' pastorala taularatuko du 1994ean

Junes Casenave-Harigileren obra hau nafar-lapurteraz idatzia dago

Oztibarreko (Nafarroa Beherea) herria den Donaixtik 'San Mixel Garikoitz' Junes Casenave-Harigile idazle ezagunak moldatutako pastorala emango du datorren urtean. Lehendabiziko aldia izango da pastoral bat Zuberoakoa ez den herri batek egiten duena. 'San Mixel Garikoitz' obra datorren uztailaren 24ean eta abuztuaren 7an taularatuko da.

ALLANDE SOKARROS / MAULE

Azken egunotan zurrumurru gisa zabaltzen hasia zen berria baietsita dago joan den ostiral arratsaz geroztik, hau da, hurrengo urtean, euskal kulturaren alorrean inoiz ezagutu gabeko gertakaria egongo dela, hots, pastoral bat Zuberoatik kanpo sortzea, hain zuzen ere Donaixtik herrian. Izan ere, bigarren aldi batez gaiaren eztabaidatzen bildu ziren Donaixtik herritarrek erabakia hartu dute, Junes Casenave-Harigile pastoral egile ezagunak idatzi berri duen 'San Mixel Garikoitz' obraren antzezteko eta horretarako egunak ere finkatu dituzte, hain zuzen 1994eko uztailaren 24a eta abuztuaren 7a.

Oztibarreko herri honek egindako urrats honekin, azpimarra-



Junes Casenave-Harigilek moldatu du pastorala.

AITOR BAYO

garria da lehendabiziko aldiz dela sortu Zuberoaz kanpo pastoral bat. Ezaugarri honez gain, 'San Mixel Garikoitz' pastoralak beste berezitasun bat izango du, Junes Casenave-Harigile nafar-lapurteraz idatzi baitu, zuberotarrak ez diren herritarren hizkerari egokitzeko moduan.

DONAIXTIKO SEME OSPETSUA Zuberoarekiko mugan aurkitzen den Donaixtik sortu zen 1797. urtean Mixel Ga-

rikoitz, hain zuzen ere bertako Garikoitzenea etxean. Bere bizitza aberatsean egindakoen artean, San Mixel Garikoitzek Betarrameko apaiz anaidiaren sortzeko lehen ildoak urratu zituen Donaixtikoa, baina hau gauzatzen ikusi gabe heriotzak harpatu zuen 1863. urtean, Salbatore egunez.

Tauletan emandako hainbat pastoral idatzi dituen Junes Casenave-Harigile Altzaiko erretoa bera ere Betarrameko anaiditik dator eta San Mixel Garikoitz pastoral bidéz omendu aurretik, beste betarramista batez aipaldi egin du bere idazlanetan. Izan ere, 1991. urtean argitara eman zuen 'Ximun Gimun Zetegiet' liburuarekin Barkoxeko seme zen betarramista apaizaren biziaz berri eman zuen.

Ramon Sanchezek irabazi du Zarauzko Aurreku Txapelketa

ZARAUTZ

Ramon Sanchez irundarrak irabazi zuen atzo Zarauzko Musika Plazan jokatu zen Aurreku Txapelketaren VIII. edizioa. Bigarren postuan Xabier Urresti irundarra gelditu zen 842 punturekin (Sanchezek baino hamasei gutxiago), hirugarren Eduardo Murumendiaraz (837 puntu) eta laugarren Telmo Esnal zarautarra (790 puntu). Irabazleak 13.000 pezeta, txapela, gerrikoa eta trofeoa eskuratu zituen.

Gainontzeko dantzariak orden honetan sailkatu ziren: Jose Ignazio Viguera (766), Jon Maia (736), Iñaki Lasa (702), Aiert Beobide (659) eta Patxi Laborda (600). Izena emanda zuten Kimetz Larrañaga eta Ibon Eskisabel ez ziren aurkeztu.

Oro har aurretik jokaturako Euskal Herriko eta Irungo txapelketetan baino maila

kaskarragoa ikusi ahal izan zen atzo Zarautzen. Sanchez txapelduna ez zen aurreko saioetan bezain ondo ibili. Bai ordea bigarren postuan sailkatu zen Xabier Urresti. Irundarrak jadanik bigarren egin zuen ekainean Irunen jokatu zen txapelketan, eta atzo bera izan zen askorentzat ongien dantzatu zuena. Epaimahai-kideek ordea Ramon Sanchezen alde erabaki zuten.

Belaunaldi berriko dantzarien artean Jose Ignazio Viguera gelditu zen hobekien. Donostiarrak maila polita erakutsi du azken txapelketetan, eta oraindik oso gaztea den arren, aurrerantzeko txapelketetan kontuan hartzeko dantzaria izango da.

Ezin aipatu gabe utzi Patxi Laborda nafarraren lana. Azken postuan sailkatu zen arren, indar handia erakutsi zuen. Iruindarra oso urduri taularatu zen bere estreineko txapelketan.

Maskarada taldeak bere azken obra antzeztu du Euro-Mozaiek jaialdian

ANBERES

Maskarada antzerki taldea asteburu honetan Anberesen ospatzen ari den Euro-Mozaiek '93 izeneko jaialdian parte hartzen ari da. Bilboko taldeak Bernardo Atxagak idatzitako 'Logalea zeukan ekilibristaren kasua' obra aurkeztu zuen atzo jaialdian eta beste emanaldi bat eskainiko du gaur, euskaraz, kulturaren hiriburu europar izendatu berri duten hirian.

Euro-Mozaiek jaialdi honetan mundu osoko antzerki taldeak daude, Kanada eta Japoniakoak barne, baina gehientsuenak europarrak dira. Bost egun iraungo

du eta gaur egungo antzerkiaren panoramaren nolabaiteko islatada izan nahi du.

Obra honen gidoiaren ardatza ekilibrista baten kasu harrigarria da. Bere karrera artistikoaren gailurrean dagoenean, motorista misterioitsu bat haren ametsetan sartu eta esnatu egingo du. Lorik egin gabeko gau batzuk pasatu ostean heroia ez da kablearen gainean lan egiteko gauza izango. Teknika aldetik Pragako Teatro beltzaren lan egiteko erantzutegi eutsi dio taldeak. Musikak ere garrantzi berezia dauka obra honetan eta berau Juan Carlos Perez konpositore ezagunak egina da.

EÜSKALDÜNAK IRAÜLTZAN

PASTORALA

GOTIAINE IRABARRENEKO HERRIATIK ANTZESTUA



DONOSTIA

ANTZOKI ZAHARRA - PRINCIPAL

1.993.eko IRAILAK 11 - Larunbata, arratsaldeko 7etan




Irailak

Logotipoak

Radio San Sebastián

Egunkaria

Amatzaileak



FESTAROA 93

NEGU X GORRIAK



TOUR 93

IRAILAK WIEN

6

BIENA